

2017ko memoria laburtua

1. SORTUREN IDENTIFIKAZIOA

1.1. Izendapena eta helbide fiskala:

SORTU Alderdi Politikoa 2012ko uztailaren 16an eratu zen epe mugagabez. Bere identifikazio fiskaleko zenbakia G95696365 da.

Alderdi Politikoen Erregistroan 2012ko uztailaren 24an izena eman zuen, izen emate liburuko VIII. Tomoko 136. orrian.

Egungo helbide soziala ondorengoa da;

Zuatzu Enpresa Parkea

Easo eraikina 4, behea

20018 Donostia

Gipuzkoa

SORTU eratzen da herritarren borondate politikoari forma ematen laguntzeko eta izaera politikoko instituzio ordezkatzaileetan haien parte-hartzea sustatzeko, hauteskundeetan hautagaiak aurkeztuz eta babestuz, honako printzipio hauek jasotzen dituzten oinarri ideologikoen arabera: Independentzia, erabateko Euskalduntzea, Sozialismoa, justizian eta askatasunean oinarritutako etorkizun baketsua, Feminismoa, Nazioarteko Elkartasuna eta Demokrazia Parte-hartzailea.

Bere jardueraren lurralde eremua Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa izango da, baina hauteskunderi begirako akordioak egin ditzake Espainiako Estatuko edo Europako Batasuneko beste alderdi politiko batzuekin, lau lurralde horiek gainditzen dituzten hauteskunde deialdietara elkarrekin aurkezteko.

1.2. SORTUren oinarrizko egitura:

Sorturen oinarrizko egitura, bere estatutuen 12. eta onodorengo artikuluetan zehazten da.

13. Artikulua: KONGRESU NAZIONALA

Alderdiaren organu gorena da.

14. Artikulua: BATZAR NAZIONALA

Kongresu arteko organu gorena

15. Artikulua: KONTSEILU NAZIONALA

Zuzendaritza politikoa gauzatzen du.

17. Artikulua: IDAZKARI NAGUSIA

Alderdiko hainbat organu zuzendu, koordinatu eta moderatzen ditu.

18. Artikulua: TOKIKO EGITURAK

Herri Batzarrak

Herriko kontseilua

19. Artikulua: ESKUALDEKO EGITURAK

Koordinaziorako markoak

20. Artikulua: HERRIALDEETAKO EGITURAK

Herrialdeko Batzarra

Herrialdeko zuzendaritza edo koordinadora.

21. Artikulua: BERME ETA KONTROLERAKO BATZORDEA

22. Artikulua: KONTU BATZORDEA

Barne mailako organu fiskalizatzilea da.

1.3. Urteko Kontuetan barnebiltzen dituen kontabilitateak:

Sortu ez denez ez Koalizioa ezta ere Federazioa, bere urteko Kontuetan ez du beste kontabilitaterik barnebiltzen.

1.4. Sorturi atxikituriko Fundazioa:

Sortuk berari atxikitako fundazio bat dauka, "IRATZAR FUNDAZIOA" izenekoa. Alderdi Politikoak Fundazioan daukan partaidetzaren portzentajea %100 da eta, beraz, SORTUK konpromisoa hartzen du Fundazioaren aurreneko jarduera programaren gastuak estaltze aldera beharrezkoak diren funtsak jartzeko, baldin eta aurreikusita dauden finantziario iturrietakoren batek emaitzarik ez badakar.

"IRATZAR FUNDAZIOA" izaera sozial eta zibikoa duen fundazio bat da eta, beti ere, Alderdi Politikoaren Fundazioei buruzko legezko eta arauzko xedapen nazionalen arabera, fundatzailearen borondatearen arabera eta Fundazioaren Estatutuen arabera gobernatuko da.

1.5. Hauteskunde Prozesuak:

Ekitaldi honetan alderdi politikoa ez da inongo hauteskunde prozesutara aurkeztu.

1.6. Aurkezten diren Urteko Kontuen ekitaldia

Ekitaldi ekonomikoa 2017/01/01ean hasi eta 2017/12/31n amaitzen da.

2. OHARRA URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

1. IRUDI FIDELA

Urteko kontuak Alderdi Politikoaren kontabilitate erregistroetan oinarrituta egin dira, eta Zuzendaritzak antolakunde politikoetara egokitutako kontabilitatearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete ditu, Alderdi Politikoaren ondarearen, finantza egoeraren eta emaitzen irudi fidela emateko helburuarekin.

Irudi fidela emateari dagokionez, kontabilitatearen arloko legezko xedapenen bat ez betetzea ekarri duen ezohiko arrazoirik ez dago.

Era berean, ez dago gehitu beharreko informazio osagarririk, kontabilitatearen arloko xedapenen eta orokorki onartutako kontabilitate printzipioen aplikazioa aski delako enpresaren irudi fidela emateko.

2. APLIKATU DIREN KONTABILITATE PRINTZIPIO EZ-DERRIGORREZKOAK

Irudi fidela emateari dagokionez, derrigorrezkoa den kontabilitate printzipioen bat ez aplikatzea justifikatzen duen ezohiko arrazoirik ez dago.

Irudi fidela emateari dagokionez, ez dira aplikatu derrigorrezkoak ez diren beste kontabilitate printzipio batzuk.

3. ZIURGABETASUNAREN BALORAZIOAREN ALDE KRITIKOAK ETA ESTIMAZIOETAKO ZIURGABETASUNAREN ARRAZOIAK

Ez dago aldaketarik garrantzitsua izan daitekeen edo oraingo ekitaldian eragina izan dezakeen ezein kontabilitate estimaziotan.

Alderdiak dakiela, Alderdi Politikoaren funtzionaltasunaren etorkizunaz zalantza esanguratsuak sor litzakeen ziurgabetasun garrantzitsurik ez dago.

4. INFORMAZIOAREN ALDERAKETA

Memoria honetan aurkezten diren finantza egoerek ekitaldi honi (2017) dagozkion kontabilitate saldoak jasotzen dituzte eta ANTOLAKUNDE POLITIKOETARA EGOKITUTAKO KONTABILITATE PLANean jasotako printzipioen arabera prestatu dira.

Balantzearen eta emaitzen kontuaren egituran ez dago aldaketarik, beraz, bi kontuak alderatzea posible da bi ekitaldien artean.

5. HAINBAT PARTIDATAN JASOTAKO ELEMENTUAK

Ekitaldia ixteko unean, Alderdi Politikoak ez dauka idazpen batean baino gehiagotan jasota dagoen ondare elementurik, ez Balantzean, ez Galdu-Irabazien Kontuan, ez Ondare Garbiaren Aldaketen Egoeran.

6. ALDAKETAK KONTABILITATE IRIZPIDEETAN

Ekitaldi honetako kontuak aurreko ekitaldiko kontuen kontabilitate irizpide berak kontutan hartuz gauzatu dira, hau da, ez da aldaketarik egon aurreko ekitaldiari dagokionean.

7. AKATS ZUZENKETAK

a) Kontuen Auzitegiak egindako informeari erantzunez, Ondare Garbia 30.000,00€ tan gutxitu da, 2017 ekitaldiko emaitzei Iratzar Fundazioari 2014ko ekitaldian egindako fundatze-zuzkidura ezarriz. 2017 ekitaldira arte, epe luzerako finantza inbertsio bat bailitzan, balantzeko aktiboan era okerrean kontabilizatua azaltzen zen.

b) Iratzar Fundazioari egindako ekarpenen idazpena birsailkatu egin da, ohiko jarduerari lottutako gastuen kontu batean erregistratuz.

3. OHARRA ERREGISTRO ETA BALORAZIO ARAUAK

1. IBILGETU UKIEZINA

Ibilgetu ukiezinaren erregistrorako eta baloraziorako irizpideak Antolakunde Politikoetara egokitutako Kontabilitate Planak jasotzen dituen arauak betez aplikatu dira.

Amortizaziorako urteko zuzkidura metodo linealaren bidez kalkulatu da, merkataritzaren eta zergen arloan legez onargarriak diren amortizazio portzentajeak aplikatuz.

Itxitako azken ekitaldian, Galdu-Irabazien kontuan ibilgetu ukiezinaren amortizazioari dagokion zenbatekoa 0,00 € izan da.

2. IBILGETU MATERIALA

Ibilgetu materiala bere eskuratze kostuan aurkezten da, hau guztia jasoz: erosketaren faktura, garraio gastuak, aseguruak, aduanak (egotekotan), zergak eta instalazio eta abiarazte kostuak, finantza gastuak kontuan hartu gabe.

Handiagotzeek, eraberritzeek, hobekuntzek eta konponketek bizitza erabilgarriaren luzapen bat eragite ez duten bitartean, hauen mantentze gastuak zuzenean Galdu Irabazien kontuan kargatzen dira. Aldiz, bizitza erabilgarriaren luzapena eragiten duten hobekuntza edo eraberritze gastuak ibilgetuaren balioa gehituz kapitalizatzen dira.

Amortizaziorako urteko zuzkidura metodo linealaren bidez kalkulatu da, ondasun bakoitzaren batez besteko bizitza teknikoaren arabera eta merkataritzaren eta zergen arloan legez onargarriak diren amortizazio portzentajeak aplikatuz.

Eskuratutako ibilgetua ondasun erabilia bada, tauletan zehaztutako portzentaiaren bikoitza erabiliz amortizatuko da.

Lursailak eta orubeak ez dira amortizatzen.

Itxitako azken ekitaldian, Galdu-Irabazien kontuan ibilgetu materialaren amortizazioari dagokion zenbatekoa 277.384,64 € izan da, aurreko ekitaldikoa 271.631,89 € izanik.

3. HIGIEZINEN ARLOKO INBERTSIOAK

SORTUK ez du ibilgetuetan inbertsiorik egin.

4. ONDARE HISTORIKO-ARTISTIKOA OSATZEN DUTEN ONDASUNAK

Alderdi Politikoak ez dauka horrelako ondasunik.

5. ERRENTAMENDUAK

Ekitaldi honetan ez da finantza errentamendurik egon.

6. TRUKATZEAK

Ekitaldi honetan ez da trukatzerik egon.

7. FINANTZA INBERTSIOAK

Epe luzearako finantza inbertsioak ondorengoak dira:

a) Egoitzen alokaerak gauzatzeko bideratu diren fidantzak, 14.600,00 €gatik

b) Rentingean alokairuan hartutako ibilgailuengatik, 1.800,00 €

8. IZAKINAK

Ondokoa azaltzen da izakinen partidan:

a) Iñigo Iruin abokatuaren funts hornidura 22.484,00€gatik, hau despatxoak jaulkitzen dituen fakturen baitan aplikatzen dijoalarik.

b) Urko Aiartza 2.106,75 €gatik.

9. ANTOLAKUNDE POLITIKOAREN JARDUERAREN KONTSIDERAZIO FISKALA

Alderdiak ez ditu BEZari loturiko eragiketak burutzen, beraz ez da BEZaren aurlezipenik egiten.

Bestetik ez dago Sozietateen gaineko zerga aurkeztera derrigorrezko, ez baitu zerga honi lotutako jardiera ekonomikorik gauzatzen, hala ere, ekitaldiro, zerga honen aurkezpena egiten du partzialki salbuetsia dagoen entitate modura.

Alderdiak egindako aitorten fiskalak, langileen nominen atxikipenagatik, P.F.E.Z, alokaeren atxikipenagatik eta eman bada profesionalen atxikipenagatik egin dira.

10. SARRERAK ETA GASTUAK

Sarrerak eta gastuak erregistratzeko orduan sortzapean printzipioa hartu da kontuan, hau da, fluxu erreala gertatu denean erregistratu dira, eta ez haiei lotutako diru edo finantza fluxua gertatu denean.

Alderdi politikoaren finantziarioari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoak eta hauteskunde arautegiak agintzen dutena betez, Alderdi Politikoak sarrera arrunten eta hauteskunderi lotutako sarreren erregistro berezia eramango du, eta hauteskunderi lotutako gastu arruntak ere bereiziko ditu. Gainera, azken horiei dagokienez, bereizi egingo ditu hauteskundeetarako publizitatea bidaltzeak sortzen dituen gastuak eta aipatutako hauteskunde arautegian aurreikusitako azpimugetakoren baten menpe daudenak.

SORTUK 2017ekitaldian zehar, ez du hauteskunde prozesuetan parte hartu.

Gastuei dagokionean, Kontuen Auzitegiaren aginduari jarraiki, 30.000,00 €ko gastuak aplikatzen dira, 2014 ekitaldian Iratzar Fundazioari egindako sortze-zuzkiduraren idazpena zuzenduz.

2017an Joseba Zinkunegi SORTUko langilea hil egin zen eta horren harira, bere ahaideei 49.500,00 €ko diruzko konpentsazio bat ematea erabakitzen da, gorpua ren lekualdatze, hileta eta ehorzketa gastuak estaltzeko.

Sarrererei dagokienean, 4.981,33€ko aparteko diru-sarrerak jaso dira SORTUk antolatutako ekitaldi publikoetan jendeak bere borondatez egindako ekarpenen bidez, telefonia konpinia baten hobarien bidez eta Gasteizko goitza zaharraren alokairu kontratua etearen bidez.

EH Bildu koalizioan parte hartzeagatik: 154.200,00 €

EH Bildu Federazioan parte hartzeagatik: 2.153.170,90 €

Afiliatuen kuotei dagokion sarrerak: 577.305,00 €.

Kargu publikoen ekarpenak: 1.623.300,17 €

11. HORNIDURAK ETA KONTINGENTZIAK

Arriskueterako hornidura funtsa 0,00 € da.

Une bakoitzean dagoen informazioa kontuan hartuz, hornidurak ekitaldia ixten den egunean baloratuko dira, haien balio eguneratuaren arabera.

12. PERTSONAL GASTUEN ERREGISTROA ETA BALORAZIOA EGITEKO ERABILITAKO IRIZPIDEAK

Pertsonal gastuen erregistroa egiteko erabili diren irizpideak antolakunde politikoetara egokitutako kontabilitate planak jasotzen dituen erregistro eta balorazio arauak izan dira.

13. DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

Izaera finalista ez duten dirulaguntzak eta diruzko dohaintzak eta legatuak zuzenean kontabilizatzen dira emaitzen kontuan. Bereziki, irizpide horren arabera kontabilizatzen dira hauteskunde gastueterako dirulaguntzak, funtzionamendu gastueterako urteko dirulaguntzak eta ezohiko dirulaguntzak.

14. LOTURADUN ALDEEN ARTEKO TRANSAKZIOETAN ERABILITAKO IRIZPIDEAK

Loturadun entitateen arteko transakzioetan erabilitako balorazio irizpidea arrazoizko balioa izan da.

4. OHARRA AKTIBO IBILGETUA

1. MUGIMENDUAREN AZTERKETA

Ibilgetu material ukiezin eta ibilgetuaren inbertsio kontuen mugimenduak 2017ko ekitaldian

ondorengoak izan dira:

	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Azken saldoa
Ibilgetu materiala	3.288.507,85 €	567.113,28 €	0,00 €	3.855.621,13 €
	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Azken saldoa
Ibilgetu materialaren Amortizazioa	411.513,05 €	277.384,64 €	207,30 €	688.897,69 €
	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Azken saldoa
Ibilgetu materialaren B.N.K.	2.876.994,80 €	-----	-----	3.166.723,44 €

Urteko amortizazioen zuzkidura metodo linealaren bidez kalkulatzen da, ondare bakoitzaren bizitza erabilgarriaren baitan, legeak onartzen dituen amortizazio portzentaiak aplikatuz.

2. ERRENTAMENDU FINANTZARIOA

SORTUK ez du inolako arrentamendu finantzariorik, ezta ere aktibo ez korronteen gaineko antzeko eragiketarik.

3. HISTORIA-ONDAREKO ONDASUNAK

Historia-ondareko parte diren ondasunen jabetzarik ez du Alderdi Politikoak.

5. OHARRA ATXIKITAKO ENTITATEAK

Iratzar Fundazioa, Easo Eraikina 4 behe, 20018 Donostian egoitza duena eta juridikoki Fundazio izaera duena.

Fundazioaren matrizea SORTU da, eta fundazioaren helburuak honen estatutuen 5. artikuluan zehazten dira, laburbilduz ondorengoak direlarik;

1. SORTUren eratzearen arrazoi ideologikoen oinarriak zabaltzea eta hedatzea; Independentzia, euskalduntze osoa, sozialismoa, askatasunean eta justizian oinarritutako etorkizun baketsu bat, feminismoa, elkartasun antiinperialista eta deokrazia partehartzailea.

2. Euskal Herri soberano baten alde, demokraziaren alde, mundu aske, justu eta solidarioago baten alde lanean dabilzan pertsona eta erakundeentzako politikoa hedatzeaz arduratzen da. Hau Euskal Herriko herrialde eta herri ezberdinetan elkarlanean gauzatzen dutelarik, beraiek beraien arteko ezagutza izan dezaten.

3. Ezker Abertzalearentzako erreflexiorako, analisirako eta ekarpen ideologiko berriak jasotzeko eremu bat finkatzea.

4. Gizarte inklusiboagoa, parekideagoa, jasangarriagoa eta partehartzaileago baten alde eztabaidak sustatu eta proposatzen diren ekintzak zabaltzea eta erakustea.

5. Erakunde sozial eta politikoekin harremanak sustatzea, baita Euskal Herri soberano baten defentsa egiten duten munduko beste edozein pertsona zein erakuderekin ere.

6. Sarea indartu eta aliantza politikoak ezkertiarak zein herrien askapenerakoa aliantzak, identifikatu eta sustatu, bateratutako agenda bat osatuz elkarbanatu daitezkeen balore eta ideak partekatuz.

7. Memoria historikoa berreskuratzeko tresna kolektibo bat izatea. Eztabaidagai izan dadin era iraunkor batean eta egunerokotasunean.

Ekitaldian zehar burututako ekintzak helburu fundatzailean oinarritutakoak izan dira soil soilik.

6. OHARRA AFILIATUAK, ATXIKITAKOAK ETA JARRAITZAILEAK

Sortukzaileei dagokienean, hau da, SORTUko afiliatuei dagokienean ez dago kuotarik zehaztua. Borondatezko kuota da, afiliatu bakoitzaren egoera ekonomikoaren arabera izango delarik. Langabezian dauden afiliatuek kuota ez ordaintzeko aukera dute, hala eta guztiz ere SORTUrekiko beraien eskubideak izaten jarraitzen dute.

7. OHARRA ONDARE GARBIA

ONDARE GARBIA

5.801.314,97 €

Aurreko ekitaldietako soberakina

4.582.295,69 €

Ekitaldiko emaitza

1.219.069,28 €

8. OHARRA EGOERA FISKALA

1. IRABAZIEN GAINEKO ZERGAK

SORTU sozietateen gaineko zergari dagokionean, partzialki salbuetsia dagoen entitate bat da eta Foru Araubidea jarraituz, izaera horren baitan aurkezten du sozietateen gaineko zerga.

2. BESTE ZERGA BATZUK

SORTUk ez du bestelako zerga fiskalik ordaintzen.

Soil-soilik, eta hala balegokio, PFEZa ordainduko luke bere jardueraren barnean profesionalekin izan litzakeen harremanengatik.

9. OHARRA DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

2016 ekitaldian, SORTUk ez du dirulaguntzarik jaso.

10. OHARRA HAUTESKUNDE JARDUERAK

2016 ekitaldian SORTUk ez du zuzenean inongo hauteskundeetan parte hartu.

11. OHARRA BESTE INFORMAZIO BATZUK

1. Zuzendaritzan emandako aldaketak:

2017ko urtarrialren 21ean Sorturen Kongresua burutu zen eta bertan, Idazkari Nagusi Arnaldo otegi Mondragon eta Antolakuntza eta Finantza arduradunak Sonia Jacinto Garcia aukeratu ziren.

Honekin batera Kontu Batzordea berritu eta izendatu zen, bertako kideak, Sonia Jacinto, Aitziber Burutaran eta Mikel Kintela izendatuz.

2. Batez besteko enplegatu kopurua

Ekitaldi honetako batez besteko enplegatu kopurua 53,33 izan da, guztiak SORTUrentzat era eksklusiboan aritzen den pertsonala bezala klasifikatuta.

3. SORTUk ez dauka Balantzean ageri ez den eta MEMORIA honetan adierazi ez den beste informazio esanguratsurik.

4. ROACen inskribatutako ezin auditore pribatuk ez ditu ikuskatu antolakunde politikoaren kontuak.